

**BANKU FUNDAZIOEN GOBERNU KORPORATIBOKO URTEKO TXOSTENA**

**BANKU FUNDAZIOAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

ERREFERENTZIAZKO EKITALDIAREN AMAIERA DATA **2015-12-31**

**IFK. G 20336251**

Izena:

**FUNDACION BANCARIA KUTXA – KUTXA BANKU FUNDAZIOA**

Helbidea:

**Mikeletegi pasealekua, 79 – ARBIDE DORREAK – 20009 – DONOSTIA-SAN SEBASTIAN**

**Babesletza gauzatzen duen erakundea edo organoa: EUSKO JAURLARITZA**

## BANKU FUNDAZIOEN GOBERNU KORPORATIBOKO URTEKO TXOSTENA

### A. GOBERNU ORGANOEN EGITURA, OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA

#### A.1. Dauden organoak eta eskumenak.

A.1.1. Adierazi banku-fundazioan dauden organoak eta haien lege- edo estatutu-jatorria:

Organoa	Lege-/estatutu-jatorria
PATRONATUA	
ZUZENDARI NAGUSIA	LEGE-JATORRIA – ESTATUTU-JATORRIA
IZENDAPEN ETA ORDAINSARI BATZORDEA	ESTATUTU-JATORRIA

A.1.2. Deskribatu eskuordezinak diren banku-fundazioaren organoen eskumenak eta funtzioak eta beste pertsona edo organo batzuen alde eskuordetutako eskumenak eta funtzioak, baita ahalordetzeak ere. Osatu honako taula hauek:

Eskumen edo funtzio eskuordezina	
Organoa	Eskumen edo funtzio eskuordezina
PATRONATUA	<p>Fundazioa gobernatu, administratu eta ordezkatzeko organo gorena da Patronatua, eta fundazio-helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen eta eskumen guztiak baliatzea dagokio, betiere Estatutuek eta ordenamendu juridikoak xedatzen dutenari jarraiki.</p> <p>Ezein kasutan ezin izango dira eskuordetu kontuen eta jardun-planaren onarpenari buruzko erabakia, Fundazioaren Estatutuen aldaketa, finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloaren eta Fundazioaren finantza-planaren onarpena, Fundazioaren gobernu korporatiboaren urteko txostenaren lanketa, Fundazioaren bat-egiteari edo Fundazioa eraginpean hartzen duen beste edozein aldaketa estrukturali buruzko erabakia, gehiengo berezi bat behar duten erabakia, Babesletzaren baimena behar duten ahalmenak eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen beste guztiak.</p> <p>Auzietarako ez diren eskuordetze iraunkorrak, ahalordetzeak eta horien ezeztatzeak indarrean dagoen araudiari jarraiki eskumena duen Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.</p>

Eskuorde daitekeen eskumena edo funtzioa		
Organoa	Eskuorde daitekeen eskumena edo funtzioa	Zein pertsona edo organori eskuordetzen zaion.
PATRONATUA	Patronatuak kide bati edo batzuei eta zuzendari nagusiarri eskuordetu ahal izango dizkie Batzorde Betearazlean dituen ahalmenak, eta ahalorde orokorrak edo bereziak eman ahal izango ditu.	Gaur egun ez dago Batzorde Betearazlerik.

PATRONATUA	<p>Zuzendari Nagusiak Patronatuaren zuzendaritzapean eta ikuskapenpean jarduten du, eta Fundazioaren zuzendaritza eta kudeaketa arrunta eta iraunkorra hartzen du bere gain. Bere funtzioak betetzean, Fundazioaren interesari esklusiboki lotuta jardungo du.</p> <p>Zuzendari Nagusiak kontuak ematen dizkio aldizka Patronatuari, eta elkarrizketa iraunkorra izaten du Presidentearekin.</p> <p>Zuzendari nagusiari Fundazioaren zuzendaritza eta kudeaketa arrunt eta iraunkorrari lotutako funtzioak dagozkio, eta Patronatuak onartutako jardun-ildoei jarraiki beteko ditu. Besteak beste, honako hauek dira:</p> <p>a) Fundazioaren giza baliabideak kudeatzea (Patronatuak onartutako plantillaren barruan), eta indarrean dauden lan-arauen betetzea zaintzea.</p> <p>b) Fundazioaren berezko xedea osatzen duten jarduera guztien funtzionamendua Patronatuaren jarraibide eta planen arabera koordinatu eta kontrolatzea, kudeaketan eraginkortasun-maila handia lortzeko.</p> <p>c) Fundazioaren sinadura administratiboa eramatea korrespondentzian, funtsak eta balioak mobilizatzean, kontu korranteak ireki eta likidatzean eta edozein motatako gordailuak eratu eta ixtean, edozein kreditu-erakundetan (baita Espainiako Bankuan ere).</p> <p>d) Patronatuak onartu beharreko jardun-planak, finantza-planak, aurrekontuak, finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloa, txostenak eta memoriak prestatzea.</p> <p>e) Patronatuak eta/edo batzordeek aztertzekeo jarri behar diren erabakiak aztertu eta prestatzea.</p> <p>f) Patronatuaren eta/edo batzordeen erabakiak betearaztea.</p> <p>g) Fundazioaren zerbitzuen antolamendu onerako eta funtzionamendu eraginkorrerako bidezkoztat hartzen dituen aginduak eta instrukzioak ematea, barne-zerbitzuak antolatzea eta Fundazioaren dependentsia, bulego eta zerbitzu guztiak, oro har, ikuskatu eta zaintzea, Patronatuaren ordezkari iraunkor gisa.</p> <p>h) Fundazioaren kontabilitatea antolatzea.</p> <p>i) Patronatuari informazioa ematea eta bidezkoztat hartzen dituen proposamen guztiak helaraztea.</p> <p>j) Patronatuari, urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan, kontuak formulatzeko eta emaitzak aplikatzeko proposamena aurkeztea, hark onar dezan.</p> <p>k) Patronatuak eskuordetzen edo ahalordetzen dion beste edozein ahalmen erabiltzea.</p>	ZUZENDARI NAGUSIA
------------	---	-------------------

## A.2 Patronatuaren egitura, osaera eta funtzionamendua.

A.2.1 Adierazi patronatuak erregelamendurik ote duen eta eman haren aldaketen berri:

Erregelamendua (BAI/EZ, onarpen-data)	Aldaketa (BAI/EZ, aldaketaren data)	Non dagoen eskuragarri, kontsultatzeko
EZ		

A.2.2 Adierazi patrono kopurua eta justifikatu bere proportzionaltasuna aktibo-bolumenarekiko:

<b>Patronoen guztizko kopurua</b>	11
<b>Fundazioaren aktibo-bolumena</b>	1.572,129 milioi euro
<b>Patrono kopurua/Aktibo-bolumena proportzioa</b>	142,921 milioi euro patrono bakoitzeko

<b>Aktibo-bolumenarekiko proportzionaltasunaren justifikazioa</b>
Aktibo-bolumenak 11 patrono izatea justifikatzen du

A.2.3 Identifikatu patronoak eta adierazi zein taldekoak diren:

Patronoen nortasuna			
Patronoaren izena	IFZ edo IFK	Hala badagokio, hura ordezkatzeko duen pertsona fisikoa	Izendapenaren eguna
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA		Izendatu gabe	2014/10/24
DONOSTIAKO UDALA		Izendatu gabe	2014/10/24
AGUIRREZABALA MUNDIÑANO, M.KARMELE	15.911.972 C		2014/10/24
A F A G I	G 20393450	AULESTIA URRUTIA KOLDO	2014/10/24
CAMPOS ILLARRAMENDI , ANTONIO	15.111.684 V		2014/10/24
ECHENIQUE GONZALEZ, GUILERMO	15.904.791 S		2014/10/24
GARCIA SANTA CRUZ, FCO. BORJA	35.775.754 J		2014/10/24
ITURBE OTAEGUI, XABIER	15.969.737 D		2014/10/24
MARTIN HERRERA, JOSE MIGUEL	15.864.407 L		2014/10/24
TAMAYO SALABERRIA, CARLOS	15.887.014 V		2014/10/24
TEJADA MANSO DE ZUÑIGA, BLANCA	34.084.229 T		2014/10/24

	Patronatuaren osaera, patronoak bilduta dauden taldearen arabera	
	Patrono kopurua	%-a guztizkoaren gain
Fundatzaileak	2	% 18,18
Interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten erakundeak (IKOE)	1	% 9,09
Hainbat baliabide ekarri dituzten pertsonak	0	
Ospe handiko independenteak	3	% 27,27
Finantza-arloan ezagutza eta esperientzia espezifikoak duten pertsonak.	5	% 45,45

A.2.4 Justifikatu patrono bakoitza zergatik den talde bakoitzeko kide:

Jabetzaren justifikazioa		
Patronoaren izena edo izendapena	Zer taldetako kide den	Taldeko kide izatearen justifikazioa
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	FUNDATZAILEAK	
DONOSTIAKO UDALA	FUNDATZAILEAK	
AGUIRREZABALA MUNDIÑANO, M.KARMELE	FINANTZA-ESPERIENTZIA	Finantza Erakunde Zuzendaritza Masterra.
A F A G I	IKOE	Gipuzkoako Alzheimerdunen eta Bestelako Dementziadunen Senitartekoen eta Lagunen Elkarte
CAMPOS ILLARRAMENDI , ANTONIO	OSPE HANDIKOA	Gipuzkoako Foru Aldundiko Adineko Pertsonen Kontseiluko kidea.
ECHENIQUE GONZALEZ, GUILERMO	FINANTZA-ESPERIENTZIA	Enpresa eta Ekonomia Zientzietan lizentziaduna – Unibertsitate Konplutensea. Finantzeta masterra – Deustuko Unibertsitatea. Politika Publikoari eta haien Ebaluazioari buruzko Lizentziatura eta Doktorego Ikastaroak –Euskal Herriko Unibertsitatea.
GARCIA SANTA CRUZ, FCO. BORJA	FINANTZA-ESPERIENTZIA	Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna – Euskal Herriko Unibertsitatea.
ITURBE OTAEGUI, XABIER	FINANTZA-ESPERIENTZIA	Enpresa eta Ekonomia Zientzietan lizentziaduna – Deustuko Unibertsitatea. MBA masterra Finantzeta – Stern School of Business – New York University.
MARTIN HERRERA, JOSE MIGUEL	OSPE HANDIKOA	ARKITEKTOA – Madrilgo Arkitektura Goi Eskola – Hirigintza Espezialitatea Madrilgo Higienezaren Ikasketen Institutuko diptomaduna
TAMAYO SALABERRIA, CARLOS	FINANTZA-ESPERIENTZIA	Ekonomia Zientzietan lizentziaduna - Euskal Herriko Unibertsitatea –aktuariotza-adarra. Zuzenbidean lizentziaduna – Deustuko Unibertsitatea.
TEJADA MANSO DE ZUÑIGA, BLANCA	OSPE HANDIKOA	Zuzenbidean lizentziaduna – Unibertsitate Konplutensea. Enpresen Aholkularitza Juridikoko Masterra – ESIC – Madril

A.2.5 Adierazi patronatuan aldian izan diren kargu-uzteak:

Izena	Baja-eguna	Kargu-uztearen arrazoia

A.2.6 Adierazi administrazio publikoen eta zuzenbide publikoko erakunde eta korporazioen patrono ordezkarien kopurua, termino absolututan eta patronoen guztizkoaren gaineko ehuneko gisa adierazia:

Administrazio publikoak eta zuzenbide publikoko erakunde eta korporazioak ordezkatzan dituzten patronoak	
Kopurua	2
%-a guztizkoaren gain	% 18,18

A.2.7 Egin abenduaren 27ko 26/2013 Legearen bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako kasuan bilduta dauden patronoen zerrenda:

Patronoen izenak	Duten kargua zer banku-erakunderi dagokion	Banku-erakundearen zer kargu duten	Abenduaren 27ko 26/2013 Legearen bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako kasuan bilduta egoteari uzteko aurreikusi den data
ITURBE OTAEGUI, XABIER	KUTXABANK	KONTSEILARIA – 1. LEHENDAKARIORDEA	2016/06/30
MARTIN HERRERA, JOSE MIGUEL	KUTXABANK	KONTSEILARIA	2016/06/30

A.2.8 Adierazi patronatuko Lehendakariaren, Lehendakariordearen, halakorik badago, zuzendari nagusiaren eta idazkariaren, eta, halakorik badago, idazkariordearen nortasuna, bere funtzioak betetzeari lotuta bakoitzak duen esperientzia profesionalaren deskribapen zehatz eta arrazoituarekin batera:

	Ba al dago?: BAI/EZ (adierazi x batez)		Izena	IFZ edo IFK	Bere esperientzia profesionalaren deskribapena	Kargua onartu zuen data
	BAI	EZ				
Lehendakaria	BAI		ITURBE OTAEGUI, XABIER	15.969.737 D	1990-1998 – Kapital Merkatuko Zuzendaria – HSBC 1998-2008 – Finantza eta Kontroleko Zuzendaria – EUSKALTEL 2008-2014 – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxako Lehendakaria. 2012-Gaur egun arte – 1. lehendakariordea - KUTXABANK 2014-Gaur egun arte – Kutxa Banku Fundazioko Lehendakaria	2014/11/20
Lehendakarior	BAI		MARTIN HERRERA, JOSE MIGUEL	15.864.407 L	1976 – Gaur egun arte – Arkitektoa bulego propioarekin; GURBAIN, SL 1996 – 2000 – EUROPISTASEko Batzorde Betearazleko kidea eta Kontseilaria 2012 – 2014 – <b>kutxako</b> lehendakariordea 2014-Gaur egun arte – Kutxa Banku Fundazioko Lehendakariordea 2013 – Gaur egun arte – KUTXABANKEko Kontseilaria eta Batzorde Betearazleko eta Arrisku Batzordeko kidea.	2014/11/20
Zuzendari nagusia	BAI		RUIZ GONZALEZ, CARLOS	15.921.986 Y	1972 – 1999 – KUTXako langilea 1999 – 2002 – KUTXako Prestakuntza eta Garapeneko zuzendaria 2002 – 2008 – KUTXako Giza Baliabideetako zuzendaria 2008 – 2014 – KUTXako Gizarte Ekintzako Zuzendaria 2014-Gaur egun arte – Kutxa Banku Fundazioko Zuzendari Nagusia	2014/11/20
Idazkaria	SI		LEAL SARASTI, ROSA	15.906.309 S	1972 – 2000 – KUTXako langilea 2001 – 2005 – KUTXako Sukurtsal Instituzionaleko zuzendaria 2005 – 2014 – KUTXako Idazkaritza Nagusi Teknikoaren Arloko zuzendaria 2014 – Gaur egun arte. Kutxa Banku Fundazioko idazkaria	2014/11/20
Idazkariordea		EZ				

A.2.9 Adierazi idazkaria patronoa den ala ez:

Idazkaria	
Patronoa DA	EZ da patronoa
	EZ

A.2.10 Osatu ondorengo informazioa, patronatuaren funtzionamenduari buruzko arauak islatuz:

<b>Funtzionamendu-arauak</b>	
<b>Patronatuaren eraketa</b>	Bilkurari hasiera ematean kideen erdiak gehi bat bertaratuta edo ordezkatuta daudenean hartuko da Patronatua balio osoz eratutzat. Patronatuko kideek beste patrono batzuei baino ezin izango diete laga beren ordezkaritza, eta ordezkaritza idatziz eta bereziki Patronatuaren bilera bakoitzerako eman beharko da. Deitutako bilerara Patronatuko kideen erdiak baino gehiago joaten ez badira, bilera bigarren deialdian eratu ahal izango da, betiere bertaratu diren edo ordezkatuta dauden patronoak gutxienez Patronatuko kide guztien herenak badira eta lehen deialdiaren eta bigarrenaren artean gutxienez hirurogei (60) minutuko tartea badago.
<b>Bertaratze-quoruma</b>	Lehendakaria den organoen bilkuretarako deialdia egitea dagokio Lehendakariari, eztabaidatu beharreko gaiak eta horien ordena finkatzea, bilkurak zuzentzea, eztabaidak zuzendu eta bideratzea, erabakiak bozkatzeko jartzea, bozketen emaitza aldarrikatzea eta aktei oniritzia ematea.
<b>Gai-zerrenda finkatzea</b>	Lehendakaria den organoen bilkuretarako deialdia egitea dagokio Lehendakariari, eztabaidatu beharreko gaiak eta horien ordena finkatzea, bilkurak zuzentzea, eztabaidak zuzendu eta bideratzea, erabakiak bozkatzeko jartzea, bozketen emaitza aldarrikatzea eta aktei oniritzia ematea.
<b>Erabakiak hartzeko erregimena</b>	Patronatuak bertaratutako edo ordezkaturako patronoen gehiengo soilaren aldeko botoekin hartuko ditu bere erabakiak, Estatutu hauen edo legeria aplikagarriaren arabera gehiengo berezi bat behar duten erabakien kasuan izan ezik. Gehiengo soila erabakiaren aldeko botoak aurkako botoak baino gehiago direnean lortuko da, abstentzioak eta boto zuriak zenbatu gabe. Berdinketarik izanez gero, lehendakariak edo, hala badagokio, bilera zuzentzen duen pertsonak kalitateko botoa izango du. Fundazioaren bat-egiteari, edozein aldaketa estrukturali eta desegiteari buruzko erabakiak hartzeko, Kutxabanken edozein inbertsio eta/edo desinbertsio egiteko eta Estatutu hauek aldatzeko, kideen bi herenen botoak beharko dira. Aurrekoa gorabehera, agindu-indarrezko arau batek idatz-zati honetan aipatzen diren erabakiak hartzea dakarren edozein betebeharrak ezartzen badu, erabakiak arau horretan adierazitako gehiengoekin hartuko dira, eta arauan aurreikuspen espezifikorik ez badago, gehiengo soilez. Bozketak izendunak izango dira normalean, bertaratutako edo ordezkaturako patrono gehienek sekretuak izatea erabakitzen dutenean izan ezik. Patronatuaren eztabaidak eta erabakiak sekretuak izango dira; nolana ere, administrazio publiko eskudunei edo beste organo eta agintari batzuei informazioa emateko betebeharrak bete beharko dira.
<b>Patronoei eman beharreko informazioa</b>	Patronatuko bileren deialdia posta elektronikoko bidez edo jaso dela adierazteko aukera emango duen beste edozein baliabideren bidez egingo da. Bertan, bileraren lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda adieraziko dira, eta dagokion dokumentazioa erantsiko zaio.
<b>Patronoek informazioa eskuratzeko sistemak</b>	Posta elektronikoa eta WEB espezifikoa.

A.2.11 Azaldu patronatuko bileren aldizkakotasuna eta deialdi-arauak zein diren, baita patronoek bileren deialdia zer kasutan eska dezaketen ere, honako taula honen bidez:

<b>Bileren aldizkakotasunari eta deialdiari buruzko arauak</b>	
<b>Aldizkakotasuna</b>	Patronatuak bere funtzioak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoa den maiztasunarekin egingo ditu bilkura arruntak, eta gutxienez hiru hilean behin, lehendakariak deialdia egin ondoren.

<b>Deialdia</b>	Patronatuko lehendakariari dagokio Patronatuaren bilkuretarako deialdia egitea. Ohiko bilkuretarako deialdia lau (4) egun baliodun aurretik egin beharko da gutxienez. Ezohiko bilkuren kasuan, berriz, deialdia baliozkoa izango da gutxienez hogeita lau (24) ordu lehenago egiten bada, aurreko artikuluan izaera unibertsaleko bilerei dagokienez ezarritakoa aparte utzi gabe.
<b>Patronoek bileren deialdia eskatzeko duten eskubidea</b>	Patronatua lehendakariak edo haren ordezkariak beharrezkotzat hartzen duenean edota kideen herenek idatziz eta aztertu beharreko gaiak zehatz-mehatz adieraziz eskatzen dutenean bildu ahal izango da. Deialdia egiteko betebeharra lehendakariaren ustez premia egiaztatua dagoenean eta bilera Patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dagoenean baino ez da izango. Deialdia egiteko eskatzen den kasuan, Patronatuko lehendakariak lau (4) egun balioduneko gehieneko epean egingo du bilkurarako deialdia, eta bilkura deialdia egin eta hogeita lau (24) ordu hiruogeita hamabira (72) bitarteko tartean egingo da. Gai-zerrendan, eskaera osatzen duten eta lehendakariaren ustez premiakoak diren eta Patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dauden gaiak sartuko dira.

A.2.12 Adierazi zenbat bileraren deialdia egin den:

<b>Deitutako bilerak</b>
15

A.2.13 Hala badagokio, informazioa eskaini patronatuaren erabakien betetzea kontrolatzeko barne-sistemen inguruan:

<b>Erabakien betetzea kontrolatzeko barne-sistemak</b>
Zuzendari Nagusiari dagokio patronatuaren eta/edo batzordeen erabakiak betearaztea.

**A.3 Beste organo eta batzorde batzuen egitura, osaera eta funtzionamendua.**

### **BESTE ORGANO EDO BATZORDE BATZUK**

Adierazi patronatuaren gainerako gobernu- edo laguntza-organok eta haien osaera, baina soilik banku-fundazioaren antolaketa-egituraren barnean badaude:

A.3.1 Batzorde edo organoaren izena:

### **IZENDAPEN ETA ORDAINSARI BATZORDEA**

A.3.2 Adierazi erregelamendurik ote duen eta eman haren aldaketen berri:

<b>Erregelamendua (BAI/EZ, onarpen-data)</b>	<b>Aldaketa (BAI/EZ, aldaketa-data)</b>	<b>Non dagoen eskuragarri, kontsultatzeko</b>
2015/01/28		WEBGUNE espezifikoa

A.3.3 Identifikatu kideak:

<b>Izena</b>	<b>Batzordean duen kargua</b>	<b>Banku-fundazioaren beste organo batzuetan duen kargua</b>	<b>Zer taldeko ordezkari den</b>
GARCIA SANTA CRUZ, FRANCISCO BORJA	Kargu-definiziorik ez dago	Patronoa	FINANTZA-ESPERIENTZIA
MARTIN HERRERA, JOSE MIGUEL	Kargu-definiziorik ez dago	Patronatuko lehendakariordea	OSPE HANDIKOA
TAMAYO SALABERRIA, CARLOS	Kargu-definiziorik ez dago	Patronoa	FINANTZA-ESPERIENTZIA
TEJADA MANSO DE ZUÑIGA, BLANCA	Kargu-definiziorik ez dago	Patronoa	OSPE HANDIKOA

- A.3.4. Adierazi, hala badagokio, osaerak islatzen ote duen kideek ordezkatzan duten taldearen arabera patronatuan duten parte-hartzea.

Osaeraren azalpena
Izendapen eta Ordainsari Batzordeak gutxienez hiru (3) kide eta gehienez bost (5) izango ditu, Patronatuak bere kideen artean izendatuko dituenak, Patronoen jakintzak, gaitasunak eta esperientzia eta Batzordearen eginkizunak edo funtzioak kontuan izanik.

Ezetzkoa bada, adierazi bere osaera-arauak:

Osaera-arauak

- A.3.5 Adierazi dagozkion eskumenak eta funtzioak, eskuordetuta betetzen dituen ala ez zehaztuz, eta adierazi bere erabakien izaera loteslea edo kontsultiboa:

Etorkizuneko eskumenak eta eskakizunak	-	Eskuordetutako eskumenak eta eskakizunak
Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak patronoen izendapen-proposamenak aztertuko ditu hamar (10) egun naturaleko epean gehienez, legean eta estatutuetan izendatzeko eskatutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko xede bakarrarekin, eta gainera honako hau egin beharko du:		
a) Patronatuari patronoentzako eta, hala badagokio, Fundazioko goi-zuzendarientzako dieten eta/edo ordainsarien inguruko politika orokorrari buruzko informazioa ematea.		
b) Legean eta estatutuetan patronoaren kargua eta, hala badagokio, Fundazioko zuzendari nagusiaren kargua betetzeko aurreikusitako betekizunen betetzea bermatzea.		
c) Ordainsarien gardentasuna zaintzea, eta horretarako garrantzitsua den edozein informazio Patronatuak aztertzeko jartzea.		
d) Patronatuko kideek edo Lurralde Historikoko erakunde publiko edo pribatuek honako hauei buruz igorritako informazioa aztertea: (i) zintotasun komertzial eta profesionalari, esperientziari eta gobernu onari lotutako betekizunak, legean eta estatutuetan eskatutakoak, (ii) Estatutuetan eta legeria aplikagarrian aurreikusitako bateraezintasun-erregimena, (iii) oro har, legean edo estatutuetan kargua betetzeko eskatutako beste edozein betekizun, eta (iv) gainerako lanbide-betebeharrak, baita, hala badagokio, Fundazioaren interesekin eta funtzio sozialaren betetzearekin dituzten zuzeneko edo zeharkako gatazka-egoerei buruzkoa ere.		

Erabakien ezaugarriak	
Lotesleak	
Aholku-emaileak	X

- A.3.6 Osatu ondorengo informazioa, bere funtzionamenduari buruzko arauak islatuz:

Funtzionamendu-arauak	
Organoa eratzea	Ordainsari eta Izendapen Batzordea balio osoz erata geratuko da bere kideen gehiengoa pertsonalki edo ordezkari bitartez bertaratu denean.
Bertaratze-quoruma	
Gai-zerrenda finkatzea	Izendapen eta Ordainsari Batzordeko lehendakariak, baita bere kideen heren batek eskatuta ere, deialdia jasotzea ahalbidetzen duen edozein bitartekoren bidez egingo du deialdia, bitarteko telematikoak barne (adibidez faxez edo posta elektronikoz), eta bileraren gai-zerrenda barne hartuko du.
Erabakiak hartzeko erregimena	Ordainsari eta Izendapen Batzordearen erabakiak bileran bertarata eta ordezkari dauden kideen botoen gehiengoaren bitartez hartuko dira, eta berdinketa dagoenean Lehendakariak kalitateko botoa izango du.
Kideei eman beharreko informazioa	Deialdiarekin batera bidaltzen da.
Kideek informazioa eskuratzeko sistemak	Posta elektronikoa eta WEB espezifikoa.



A.3.7 Informazioa eman bileren aldizkakotasunaren eta deialdi-arauen inguruan, baita kideek deialdia eska dezaketen kasuen inguruan ere, honako taula honen bidez:

<b>Bileren aldizkakotasunari eta deialdiari buruzko arauak</b>	
<b>Aldizkakotasuna</b>	Izendapen eta Ordainsari Batzordea bere Lehendakariaren ustez beharrezkoa den maiztasunarekin bilduko da, bere funtzioak egikaritzeko.  Era berean, Patronatuak deitzen duen guztietan bilduko da, edo batzordekideetatik bik (2), gutxienez, biltzeko eskaera egiten dutenean.
<b>Deialdia</b>	Izendapen eta Ordainsari Batzordeko lehendakariak, baita bere kideen heren batek eskatuta ere, deialdia jasotzea ahalbidetzen duen edozein bitartekoren bidez egingo du deialdia, bitarteko telematikoak barne (adibidez faxez edo posta elektronikoz), eta bileraren gai-zerrenda barne hartuko du.
<b>Kideek bileren deialdia eskatzeko duten eskubidea</b>	Izendapen eta Ordainsari Batzordeko lehendakariak, baita bere kideen heren batek eskatuta ere, Batzordearen bileren deialdia egingo du.

A.3.8 Adierazi deitu diren bileren kopurua, eta horien artean, kide batek edo batzuek eskatuta deitu direnak:

	<b>Guztizkoa</b>	<b>Kide batek edo batzuek eskatuta</b>
<b>Deitutako bilerak</b>	1	0

A.3.9 Hala badagokio, erabakien betetzea kontrolatzeko barne-sistemei buruzko informazioa:

<b>Erabakien betetzea kontrolatzeko barne-sistemak</b>
Izendapen eta Ordainsari Batzordeak, Lehendakariaren bitartez, bere jardueren berri emango dio Patronatuari. Informatzeko izapide hori, horretarako aurreikusitako Patronatuaren bilkuretan beteko da, hala dagokionean.  Patronatua osatzen duten kide guztien eskura jarriko da Izendapen eta Ordainsari Batzordearen bilkuretako akten kopia.

## B. IZENDAPEN POLITIKAREN EZARPENA

B.1 Adierazi banku-fundazioaren gobernu-organoei aplikatu beharreko izendapen-politika:

<b>Banku-fundazioaren izendapen-politika</b>
Patronatua gutxienez bederatzi (9) kidek eta gehienez hamabost (15) kidek osatuko dute. Muga horien barruan, kideen kopuru zehatza finkatzeko ahalmena izango du Patronatuak. Patronoak pertsona fisiko edo juridiko garrantzitsuak izango dira Fundazioaren Gizarte Ekintzaren jardun-eremuan, eta ondorenean adieraziko ditugun taldeetako batekoak izan beharko dute: A) Erakunde sortzaileak: Bi (2) kide. - Gipuzkoako Foru Aldundia. - Donostiako Udala. Erakunde sortzaileak Fundazioko karguagatiko patronotzat hartuko dira, eta barneko funtzionamendu-arauei jarraiki hautatuko dituzte beren ordezkariak. B) Fundazioaren jardun-eremuan interes kolektiboak ordezkatzeko erakundeak: Kide bat (1). C) Fundazioaren helburu sozialak betetzeari lotutako arloetan edo Fundazioak inbertsio garrantzitsuak dituen sektoreetan (finantza-sektorea salbuetsita) ospe profesional handia duten pertsona fisiko independenteak: Bi (2) kide gutxienez. D) Finantza-arloan jakintza eta esperientzia espezifikoak duten pertsona fisikoak: Patronatua osatzen duten kideen herenak (1/3) gutxienez.

- B.2 Banku-fundazioaren gobernu-organoetan izendatutako pertsonak beren funtzioak betetzeko legeak eskatutako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko inplementatutako neurriak eta prozesuak azaldu itzazu:

<b>Gobernu-organoetako kideek beren funtzioak betetzeko legeak eskatutako baldintzak betetzen dituztela eta beren funtzioak banku-fundazioaren interesik onenean betetzen dituztela ziurtatzeko inplementatutako neurriak eta prozesuak</b>
Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak izendapen-proposamenak aztertuko ditu hamar (10) egun naturaleko epean gehienez, legean eta estatutuetan izendatzeko eskatutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko xede bakarrekin.

- B.3 Izendapen-politikari lotuta dauden funtzioak egikaritzeko sortu diren organo edo batzorde espezifikoak identifikatu, halakorik badago:

<b>Organoak</b>	<b>Funtzioak</b>
Izendapen eta Ordainsarien Batzordea	<p>Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak patronoen izendapen-proposamenak aztertuko ditu hamar (10) egun naturaleko epean gehienez, legean eta estatutuetan izendatzeko eskatutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko xede bakarrekin, eta gainera honako hau egin beharko du:</p> <p>a) Patronatuari patronoentzako eta, hala badagokio, Fundazioko goi-zuzendarientzako dieten eta/edo ordainsarien inguruko politika orokorrari buruzko informazioa ematea.</p> <p>b) Legean eta estatutuetan patronoaren kargua eta, hala badagokio, Fundazioko zuzendari nagusiaren kargua betetzeko aurreikusitako betekizunen betetzea bermatzea.</p> <p>c) Ordainsarien gardentasuna zaintzea, eta horretarako garrantzitsua den edozein informazio Patronatuak aztertzeke jartzea.</p> <p>d) Patronatuko kideek edo Lurralde Historikoko erakunde publiko edo pribatuek honako hauei buruz igorritako informazioa aztertzea: (i) zintzotasun komertzial eta profesionalari, esperientziari eta gobernu onari lotutako betekizunak, legean eta estatutuetan eskatutakoak, (ii) Estatutuetan eta legeria aplikagarrian aurreikusitako bateraezintasun-erregimena, (iii) oro har, legean edo estatutuetan kargua betetzeko eskatutako beste edozein betekizun, eta (iv) gainerako lanbide-betebeharrak, baita, hala badagokio, Fundazioaren interesekin eta funtzio sozialaren betetzearekin dituzten zuzeneko edo zeharkako gatazka-egoerei buruzkoa ere.</p>

## C. INBERTSIO-POLITIKA KREDITU-ERAKUNDE PARTAIDETUAN

- C.1 Azaldu labur-labur zeintzuk diren inbertsio-politikaren helburuak kreditu-erakunde partaidetuan, eta banku-fundazioak partaidetuan duen partaidetzaren kudeaketa gidatzen duten irizpideak:

<b>Inbertsio-politika kreditu-erakunde partaidetuan</b>
<p>Gaur egun, Kutxa Banku Fundazioak % 32ko partaidetza dauka zuzenean KUTXABANK, SArean (Aurrerantzean, "KUTXABANK") kapital sozialean; Kutxabank sozietate anonimoa da, Espainiako legeriaren arabera eraturikoa; helbidea Bilbon dauka, On Diego Lopez de Haro Kale Nagusiko 30-32. zenbakietan, eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan erregistratuta dago (Liburukia: 5.226, Liburua: 0, Folioa: 1, Orrialdea: BI-58.729, Inskripzioa: 1), eta kreditu-erakunde gisa Espainiako Bankuaren Banku eta Bankarien Erregistroan dago erregistratuta, 2095 zenbakiarekin.</p> <p>26/2013 Legearen 32.2 artikuluan eta bere Estatutueta 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Banku Fundazioak bere jardura nagusia bere Gizarte Ekintzari arreta eskaini eta hura garatzera eta bere ondarea eta, ondorioz, KUTXABANKEN duen partaidetza, behar bezala kudeatzera bideratzen du.</p> <p>KUTXABANKeko partaidetzaren kudeaketa gidatzen duten oinarritzko irizpide estrategiko gisa, Kutxa Banku Fundazioak KUTXABANKen finantza-jardura Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxaren bilakaera historikoarekin bat etor dadin, eta KUTXABANKek bere jardura tradizionalki garatu duen lurraldeetan bere lidergo eztaba daezinari eutsi dakion zainduko du. Era berean, KUTXABANKen finantza-jardueraren kudeaketa batez ere minorista den toki-bankako erduan oinarritzea sustatuko du Banku Fundazioak, eskalako ekonomiak eta etekin iraunkorra lortzeko aukera eman dezan. Partikularrekin, autonomoekin eta enpresa txiki eta ertainekin izango duen hurbiltasuna, konfiantza eta epe luzerako harremana oinarri izanik sustatuko da beti bezeroen kudeaketa.</p> <p>Aurrekoaren ildotik, KUTXABANKek, bere finantza-jardura egiterakoan, historikoki bere ibilbidearen bereizgarri izan diren kaudimen- eta errentagarritasun-printzipioei eutsi diezaiela ahaleginduko da Banku Fundazioa.</p>

- C.2 Adierazi banku-fundazioak egin dituen kreditu-erakunde partaidetuaren akzioen eskuraketa- edo transmisio-eragiketak, edo banku-fundazioak kreditu-erakunde partaidetuan dituen boto-eskubideak aldatu dituen egindako beste edozein eragiketa:

Egindako eragiketa	Boto-eskubideak nola aldatu diren
EZ DU APLIKATZEN	

- C.3 Azaldu erakunde partaidetuak egiten duen emaitza-banaketari dagokionez banku-fundazioak egin duen politika, dibidendu-banaketa eta baliabide propioen gehikuntza barne, eta gai horien gainean boto-eskubidea zein eratan egikaritu den:

Erakunde partaidetua	
<b>Emaitza-banaketari dagokionez egindako politika, eta boto-eskubidea nola egikaritu den.</b>	Banku Fundazioak dibidendu-banaketari buruzko proposamenak kreditu-erakundeei kapital-errekerimenduei lotuta aplikatzekoa zaien indarreko legeria eta erakunde ikuskatzaileetatik datozen jarraibideak edo xedapenak errespetatuz egingo ditu, horrela Kutxabanken baliabide propioak indartzen lagunduz, baina era berean banatutako kopuruak Banku Fundazioari bere gizarte-ekintza gauzatzeko aukera emango diola kontuan izanik, une bakoitzean gizarte-ekintzak inplementatzen dituen proiektu eta jardueren indartze eta garapenean parte hartuz.
<b>Dibidendu-banaketari dagokionez egindako politika, emaitzak eta boto-eskubidea nola egikaritu den.</b>	
<b>Baliabide propioen gehikuntzari dagokionez egindako politika, emaitzak eta boto-eskubidea nola egikaritu den.</b>	

- C.4 Azaldu banku-fundazioak kreditu-erakunde partaidetuko beste akziodun batzuekin duen akordio-politika.

<b>Banku-fundazioak kreditu-erakunde partaidetuko beste akziodun batzuekin duen akordio-politika.</b>
EZ DU APLIKATZEN

- C.5 Azaldu hirugarrenekin sinatu dituen akordioak, eskura dituen boto-eskubideen egikaritze itunduaren bitartez kreditu-erakunde partaidetuaren kudeaketari dagokionez iraunkorra izango den edo kudeaketan eragin nabarmena izan nahi duen politika komun bat hartzera behartzen badute akordio horiek.

Hartutako akordioa	Akordioa zer erakunderekin sinatu den	Akordioaren edukia, boto-eskubidearen egikaritze itundua aipatuz
EZ DAGO		

## D. BESTE INBERTSIO BATZUK: JARDUNAK ETA JARRAITU DEN POLITIKA

